

izenburuak argi uzten duen legez, Vadimek ez zuen kokainarekin oso harreman sanoa –testuko giro drogazaleetan cocsh terminoa erabiltzen dute–.

Horrekin batera, nabarmenak dira autoreak protagonistaren bidez bideratzen dituen gogoetak. Hausnarketa horiek askotarikoak dira, eta obra idatzita dagoen garairako oso aurrerakoak dira. Hala nola oso interesgarriak dira generoari eta drogei buruz proposatzen dituenak, sarritan galdera zuzenen bidez: «Harritzekoa al da, kokainaren eraginpean, giza-kiak sentimendu nobleak, oso gi-

**‘Nobela, kokainarekin’
kultuko testu bilakatu
da, gehienbat Errusiako
literaturari eman zion
hauspoagatik**

zatiarrak, bereganatzea (amultsutasun histerikoa, ezohiko ontasuna eta abar), eta ekintza hori desagertzean, pertsona bultzada basatien eta zitelen mende sentitzea (amorrua, haserre, krudel-tasuna)?». Kontsumoak eragin-dako ajearen ingurukoak ere jasotzen ditu Levik: «Kokainaren gertakaririk beldurgarriena. [...] Eta egundoko tristura itzaltsuan adierazten zena».

Generoaren gainean jaurtitako pentsamenduak ere zorrotzak dira: «Hartara, berdaderoa zen espiritualtasunaren eta sentiberatasunaren arteko bitan banatze hori, gizonaren kasuan, gizontasunaren seinale zen; bitartean, fenomeno bera emakumearen kasuan, gaiztakeriaren adierazle zen».

Levik idatzitako loturarik gabeko memoriaren protagonista-aren potreta morala nagusitzen da. Hala, liburuaren lehen zatian, pertsonaia nagusiaren txarkeria azaltzen da, batez ere amarekiko erakusten duen jarrera eta jokabide ankerra tarteko: «Buru zahar eta horixka horretan, hainbesteko babesgabetasuna zegoen, hainbesteko erresumin mingotsa eta gorrotorik gabea, eta inork behar ez zuen hainbesteko etsipena, zahartzaro nardagarri horretan».

Hoztasun krudel eta ezkor horrek kontakizun guztia trinkotzen du, irakurlea idortu eta arrakalatu arte, izotza nola. Mosku bera jelaizko mamu bilakatzen da Leviren hitzetan. «Izozte lehor eta gogorra ari zuen, eta guztiak krak egiten zuten. [...] Teilatueta-rik kea zutabetan hedatzen zen, hain ziren zuriak, hiriak zerutik zintzilikatutako lanpara erraldoia baitzirudien».


Nor da munstroa?

Irati Majuelo

Barbaro irau. Barbarotasuna gorde eta harekin irau. Aurretik, kanpotik ezarria den barbarotasunari eutsi, eta harekin bizi eta irau. Barbarotasuna onartu, beretartu, galdekatu egiten du Yousfik, ekidinezinari aurrez aurre begiratu eta galdera jartzen du mahai gainean: zer izan gaitzeko deserrotuok, bazterratuok, kolonizazioaren seme-alabok, ez bada barbaro?

Lehen liburu zuzen eta ausarta argitaratu zuen 2022an, herdoilik gabeko mihiaz eta argitasunez idatzia, probokatzailea, auzi korapilatsuei beldurrik gabe helitzen diena. Euskarara itzuli berri du Itziar Diez de Ultzurrunek Txalaparta argitaletxean, jatorrizko testuari Ainhoa Nadia Douhaibiren gibel-solasa erantsita. Beharrezko testua Douhaibirena, barbarotasunaren perspektiba euskalduntasunarekin lotu,

eta egon litezkeen intersekzioak eta sarri ikusi nahi ez diren angelu itsuak bistaratzeko zenbait gako ematen dituena. Pena gibel-



‘Barbaro irau’

Egilea: Louisa Yousfi.
Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun.
Argitaletxea: Txalaparta.

Literatura unibertsala

**HAUR ETA GAZTE
LITERATURA**

Imanol Mercero

Ipuinen artean aparteko lekua merezi dute *alegia* (eta *fabula*) deitzen diren horiek. Dena dute berezi. Harrigarria da nola egitura oso sinplea edukita ere, mami asko duten kontakizunak osatzen dituzten. Eta ez hori bakarrik, irakaspenak eskaintzeko estrategia narratibo onenak biltzen dituzten alegia hauek, uanean uneko irizpide moralak gainditzen dituen jakinturia multzo bat osatzea lortu dute. Agian honegatik, idatziz jasotako ipuin sorta zaharrenetakoak dira (2.500 urte dituzte Esopo greziararenek!).

Album honek *Erbia eta dortoka bigarren aukera* ipuin ospetsuari bigarren kapitulu bat eransten dio. Umorez bete, testuinguruak eskatzen duen eran. Quentin Blakeren

obra gogora ekartzen duten ilustrazioek lanaren emaitza borobiltzen laguntzen dute.

Aurretik ere euskarara ekarri digute alegia hau, bi aldiz gutxienez: 1980an M. Eulalia Valerik egokitu eta Joxantonio Ormazabalak itzulia, La Galera eta Elkar argitaletxeen esker. Eta *Alegiak / Esopo* liburuan, Iñaki Mendigurenen itzulpenarekin, 1999an. Tamalez, Bizenta Mogelen *Ipui onak* bilduman ez dago fabula hau.



**‘Erbia eta dortoka:
bigarren aukera’**

Idazlea: David Pintor. **Ilustratzailea:** David Pintor. **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

solasen neurri laburrera mugatu behar izana, interesgarria baliatzeke Yousfiren ekarpena Douhaibiren jakintzatik Euskal Herriari kokatzeko ariketa sakinago egitea, baita argitaletxe berean iaz ateratako *Barbaroak* eta *zibilizatuak* (Atutxa, 2022) liburuarekin izan ditzakeen hartu-emanak aztertea ere.

Kolonietako migranteen ondorengoan ahotsetik mintzo da Yousfi, ez bateko ez besteko ez izatearen egonezinetik, aukeratu gabeko deserrotzetik. Irmo mintzo ere, estatu menperatzaileek eraikitako egitura arrazistak eta mekanismo (auto-)suntsitzaileak jartzen baititu agerian. Baita ezkerreko pentsamendu antiarrazista onbera kritikatzeko ere. Idazleak koplarik gabe ematen dio buelta barbaroaren iruditerari, ekidinezinezko munstroen ideari: arazoa ez dira jatorria, kultura, eutsi beharrek oreka familiar, identitario eta materialak; arazoa arrazismoa da, harreman kolonialak. «Gure munstroak ez dira sortzen zuen gabezia dugulako, zuetatik gehiegi daukagulako baizik: Frantzia gehiegi, Inperio gehiegi».

Horretarako, adibide konkretuak baliatzen ditu, izan Kateb Yacinen hausnarketak, Chester Himesen pertsonaia odoltsuak, izan Mehdi Meklat barbaro bezatuaren desengainua edota Booba raperoaren kantua. Ildo horretan, manifestutzat ere har daitezkeen Yousfiren testuak marko zehatza dauka: Frantzia eta haren iragan kolonialaren ondorioak. Ez ditu horratik gu salbuesten gaituzten gatazkak azaleratzen, Europarenak ere badiren heinean. Alabaina, berea den errealitatetik idazten du, eta, ondorioz, testuinguru bera, darabiltzan erreferentziak edota pentsamendu tradizioak ere bizi duen jatorri erdibitu/bikoiztuari dagozkie.

Mendebaldearen errugabetasuna aise haizatzeko den egundotan, ziztadak dira Yousfiren hitzak: «Errugabetasuna asmatu zuten. Herri osoak sarraskitu dituzte, eta, bidenabar, Walt Disney eraiki». Gezi bat zuzen-zuzenean. Botere-harremanen joko argitara ekartzean, ordea, errukirik ez du eskatzen barbaroarentzat: utzi barbaro izaten, ez izaziozu kendu errua.

Atzera zenbaketa

**HAUR ETA GAZTE
LITERATURA**

Imanol Mercero

Gau beltzaren atarian, propio egindako argitalpena dirudi album ilustratu honek. Agertzen direlako mamua eta banpiroa, zontzia eta sorgina, momia, gizotsoa eta Franki, giza adabakiz osatua.

Guztiak katu baten atzetik paseatzera irten dira, alaiki. Baina ezustean zorigaitza iritsiko zaio euretako bakoitzari, eta banan bana desagertzen ikusiko ditugu. Irakurleon zeregina, hain zuzen, atzera-zenbaketa gisan antolatutako testua ilustrazioekin erkatzea da: «Zazpi munstroetatik sei baino ez dira gelditu. Zenbatu itzazu ondo eta aurrera segitu».

Haurren literaturan ia genero propioa osatzen duen beldur barrerarikko liburu honek testu errimaduna du, eta nahitaez gogora ekartzen du *Hamaika an-*

dere ausart albuma, argitaletxe berean plazaratu zena.

Loturekin jarraituz, badugu Pamiela-Kalandrakak argitaratutako *Bost* albuma ere, bost arteko zenbaketa kanta bidez egiten duena.

Eta erreferentziekin amaitzeko, nahitaez aipatu behar dira *1 arte zenbatzeko liburu*a (Ibaizabal, 2022) eta *Zuhaitz bat* (Deonartean, 2020) albumak.

Hona, bada, umorea erabiliz zenbaketa jolas bihurtzeko gaitasuna duten bost liburu bikain.



**‘Zazpi munstro
eta katu bat’**

Idazlea: Rafa Ordoñez. **Ilustratzailea:** Christian Inaraja. **Itzultzailea:** Xabier Olaso. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.